

SED QUIA SUA

SEGUROLA



HIZKUNTZA HONEK ZER DIOEN ANTZEMATEKO SAIOA

erein

Izenburua: **Sed quia sua**

Egilea: **Iñaki Seguro**

Bilduma: Saiopaperak, 31

ISBN: 978-84-9109-655-9

Salneurria: 19,00 €

Orriak: 328

SEGUROLA, *SED QUIA SUA*: AURKEZPENA
“SQS da QT euskaratik”

—Liburu honen oinarrian, edo hor nonbait, dago ezinezko ezkontza bat profeta zoroaren eta jakitun zuhurraren (zozoaren?) artean. Ezkonduko lirateke “Mitxelena paradigma” (filologia, hizkuntzalaritza) eta “Oteiza (des)paradigma” (asmatzea, deskribasmatzea).

—Oteizak, QT-n (*Quousque tandem...!*, 1963), asmatu/deskribasmatu zuen ixtorio bat, egia bat, alegia bat, harrietatik, harrespiletik, cromlechetik. Nik hemen, SQS-n (*Sed quia sua*, 2020), asmatzen edo deskribasmatzen dut egiazko alegia bat, alegiazko egia bat, hizkuntzatik.

►QT: “interpretación estética del alma vasca” → SQS: “hizkuntza honek zer dioen” (57 urteren buruan).

►Galdera: hizkuntza batean, edozeinetan, zerbait esaten da, dugu, baina hizkuntzak berak zerbait esan ote lezake? Zer da hori? Errealia al da? Liburu honetan baietz dirudi, hizkuntzak zerbait esaten duela, baina horren errealtasunari buruzko galderak beti geldituko dira airean.

—Euskaltzaleek eta euskalzuloek 1960-70eko hamarkadetan zioten: “Oteiza jauna: harriak ez dira garrantzizkoak; hizkuntza da arnasa”. Egiaz bezain alegiaz esanik: haiek eskatzen zutena zen “QT bat euskaratikakoa”: horixe izan liteke SQS hau.

—Beharbada liburu hau olgetan-benetan hartu behar da. Bizkai aldera esaten da, edo zen, *olgetan-benetan*. Olgetan? Ez. Benetan? Ez. Olgetan-benetan. Beraz, olgetan-benetan esanik: “SQS da QT euskaratik”.

►Liburu honetan zer sinistu behar da, eta zer ez? Sinistea (edo ez sinistea) gauza potoloegia da. Utikan!

—Liburu honek QT imitatzen du itxuran bertan, azalean, tituluan. (*Quousque tandem* Zizeronek, eta *Sed quia sua* Senekak.) Eta imitatzen du egituran, eta eskaintzan bertan: “andrelagunaren amonari” eta abar.

—Aurreneko akatsa, liburu honena (edo munduarena): Oteizagandik izena gelditu da. QT irakurri duten gazteenak 50-60 urte bitartekoak dira. Gainerantzean, friki batzuek eta Arte Ederretako ikasleren batzuek, izatekotan ere. Orduan, jendeak ez dio berehalakoan antzemango liburu hau QT-ren nolabaiteko oihartzuna dela. Hori ez nekien nik; ez nekien publiko zabalak atzendurik zeukala Oteizaren QT. Liburua egin samartua nuela jabetu nintzen.

—Bigarren akatsa, liburuarena (edo munduarena): ezmundu batera dator. Hizkuntzatik pentsatzeari uko egindako mundu batera dator. Pentsatzen da mundutik, errealitatetik, eta, uste ez dela, hizkuntza gizen-nagusi bakan batzuetatik. Hizkuntzatik, hizkuntzetatik, hizkuntza txiki-menoxetatik pentsatzeko gogoia eta gustua galdutako mundu batera dator. Bide zaila.

►Esan beharra dago, Oteizaren beste liburu baten titulua gogora ekarriz (*Ejercicios espirituales en un túnel*, hain zuzen ere), liburu honi ekin aurretik komeni zaiola irakurleari gogo-jardun batzuk egitea tunelen batean, argitara begiberriturik ateratzeko gero.

—Liburuak ditu hiru parte, eta eranskin grafiko koxkor bat, bere iruzkintxoekin. (QT-k bezalaxe, jakina.) Aurreneko partean, astintzen dira kontu nolabaiteko batzuk, eta bereziki desmarkatzen/saihesten gara ñañojakintza euskaljatorretik. Euskararen zahartasun edo antzinatasuna eta beste topiko merkezurteko mordo bat hartzen dira ahotan; hartzen dira estu. Euskal gogoaz ere ari gara, bereziki galdetzeko: zer da "gogoia"?

—Bigarren partea da erdiko trontzoa. Hizkuntza honek zerbait esango luke, eta zerbait hori bi aldaketa nagusiren bitartez ematen dugu. Euskal gogoan gertatu diren bi aldaketa/galera nabarmen: (1) euskal gogo jatorrizko berrasmatu/berreraikian (geuk berrasmatu edo berreraikian) mundua ez zegoen gauzaz osatua, baizik-eta gaiz: osaera zahar hori da galdu dena. Eta (2) guztia ez zen "dena", baizik-eta "dena eta ez dena": den-eta-ez-denetik den hutsera amildu gara, edo ginen. Bigarren parte edo erdiko trontzo honetan jakintzatik, ofizialetik, desmarkatzen/saihesten naiz bereziki, eta agertzen naiz, nolazpait esateko, "jakinduriaren alde". Era berean, eta paradoxikoki, fisikatik asko edaten dut, gehitxo ere bai aukeran; mozkortzeraino, tarteka.

►Oteiza gogor hartzen dut. "Euskal profeta belarrimotza" deitzen diot, baina era berean asko estimatzen dut, eta asko zor diot. Zer da nekezenik barkatzen diodana? Adibide batekin ikusiko da: hartzen ditu hark *arroyo* eta *xirripa*, eta esaten du *arroyo* euskarago dela *xirripa* baino, AR daukalako eta hori bere ixtorioan oso gauza garrantzikoa izaki. Erdarazko hitza euskarago da euskarazko hitza baino. ("Orduan zertarako euskara? Mesedez, Jurgi! Faborez, Gorka!") Hori ez diot barkatzen, hori ezin zaio barkatu: euskararik jakin ez eta euskal jendearen gaineratik jarri eta zer den euskara eta zer ez erabakitzea euskaldunen sentieraren kontra.

—Hirugarren partean, hitz bakanetatik abiatu, ehundik gora hitzetatik abiatu, munduko zenbait gai eta gauzatxo hitz horietatik argitzeko saioa egiten da. Kontuz: ez da mundu-ikuskerara antolatu bat deskribatu nahi. Ez dagoenik ez da asmatu nahi. Orobat, ez da etimologian gehitxo erori nahi, nahiz-eta irristada batzuk ezin saihestuak gertatzen diren.


—Liburu hau oso dago, edo dator, deskokatua. Ez da kokatzen ez akademizismo jantzian eta ez euskaljatorrismo erantziegian. Liburua deskokatua dator, eta irakurlea deskokatzera ere etorri nahi luke, deskokatzearen ondorioz, bizitzea erraztuko dioten leku eta ezleku espiritualak aurki ditzan, profeta edo terapeuta holistiko baten eran mintzatzea zilegi baldin bazait.

►Horrezaz gainera, liburu hau deskokatua dago beste era batera ere, ze merkatuan edo publikoari begira, hau literatoentzat filologikoezia da, eta filologoentzat, berriz, metafisiko edo poetikoezia. Liburu hau ez da, inondik ere, "bere garaiko umea". Esan daiteke 50 bat urteko atzerapenarekin datorrela. (Lehenago esan dugun bezala, euskaltzaleek eta euskalzuloek eskatzen zuten garaian behar zuen egina izan.)

—Azalean agertzen direnetako bat Lazkao Txiki da. Oteizaren ahots profetikotik abiatzen den liburu honek zerbait esan beharra zeukan bertso-gauzaren inguruan, azaletik hasita. Idoro dugu Lazkao Txiki hil zuen anesthesiak barnean zeramatzala bi hazi: bata, euskal estilo bixi-arina (ez hil-astuntxoa) ezabatzeko hazi gaiztoa, eta bestea, modu osagarrian, bectsolari hil-astuntxoa (ez bixi-arina), bertsolaria ez baina bectsolaria munduratzeko beharrezkoa zen hazi nolabaitekoa.

—Azkenik: liburua alarma egoeran aurkezten dugu. Oso egoki eta parean datorrena da alarma egoeran aurkezte hau, zeren beldur izatekoa baita, eta alarman sartzeko modukoa baita, ez ote diren aurki munduko hizkuntza koxkor menoxtu guztiak geldituko zer dioten adierazteko arnasarik gabe, eta beraz, ez ote garen geldituko gu modurik gabe haiek zer dioten antzemateko.

(2020ko Abenduaren 3a, egutegian Euskararen Eguna, baina ez hizkuntza honena, zeinak ez baitauka egunik ez egutegirik)



AURKEZPENAREN ERANSKINA:
“arigune dekolonialdua da hau”

Liburu hau aurkeztu da helduek edo zaharrek ulertzeko moduan: “SQS da QT euskaratik”. Eta ez dela bere garaiko umea, eta orain dela 50 urte idatzi beharra zela, eta abar.

Baina hizkuntzak asko lezake: deskribatzen *eta* asmatzen du mundua, edo mundutxo bat. Eta orduan gaur diogu, Euskaraldi betean, Oteizak hizkuntzarentzat, edo gizakiarentzat, harrigunea bilatu zuela, eta gu arigunean gaudela.

Gehiago, eta gazteagoek ulertzeko moduan. Liburu honetan egiten dena da hizkuntza barrutik dekolonialtzea. Hizkuntza honen dekolonialtzea egikaritzen da hemen, bere barrunbetik. Hizkuntzak bere horretan dioena aditzean eta agertzean, mendebaldeko **harrazoiak** (arrazoi **harroak**) eta jakintza gailenak itsatsi dizkiguten eskemak bazterrera utzi beharra daukagu, hizkuntzak zer dioen antzemateko. Hizkuntzari **harrazoi** garaile horrek itsatsi dion kraka guztiaz gabeturik.

Hemen euskara dekoloniala edo euskara dekolonialdu bat birsortzen eta berraurkitzen da.

Liburu hau leku bat baldin bada, edo balitz, arigune dekolonialdu bat litzateke.

Hola esanda, oso oso bere garaiko umea dirudi.

Iñaki Segurola
Donostian, 2020ko abenduaren 3an